

Haur Eskolako 2023/2024 ikasturterako matrikulazio-epea

2023/2024 ikasturterako, **2021ean, 2022an eta 2023an** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **apirilaren 17tik 28ra** bitarte egongo da zabalik.

Bestalde, **apirilaren 19an ATE IREKIAK** saioa eskainiko da, arratsaldeko **17:00etan**.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943361216 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.



“23/24 ikasturterako ikasleen onarpenerako aginduan” ezarritako oinarrizko irizpideak ez dira betetzen ari

2023/24 ikasturterako aurrematrikulazioko behin behineko zerrendak asteartean argitaratu zituen Hezkuntza Sailak. Ez ditu oinarrizko irizpideak behar bezala bete, eta honen inguruan gardentasun falta nabaria izan da. Hori dela eta, zenbait familia hautatutako ikastetxetik kanpo geratu da. Horren aurrean, ikastolak aurrez adostutako baldintzak betetzen ez diren ikasleen kasuetan, ikasle horiek bere gain hartuko dituela jakinarazi du. [Informazio gehiago...](#)



Udarregin ez da kasua izan, aurrematrikula eskaera egin duten guztiak onartuak izan dira.

Udaberriko oporrak

Datorren ostiralean, martxoak 31, eguerdiko **12:30ean** HH (3-6), LH eta DBHko ikasleek **udaberriko oporrak** hasiko dituzte **apirilak 16 bitarte**; **Haur Eskolakoek** ere egun berean hasiko dituzte beren oporrak.



Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Bertan, berrikuntza ugari ikusiko dituzue, tartean egitasmo bat gehitu zaio eskaintzari. Modu horretan, Euskal Herriko ertz



guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera izan dezaten. [Informazio gehiago...](#)

HAUR HEZKUNTZA

Zorriak HH3 gelan

HH 3 urteko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

Irteeren kobrantza

GAUR LH 2. mailako ikasleek **Txurrukara (Oriola)** egingo dugun ikasturte amaierako irteeraren 2. zatia kontu korronte bidez kobratuko dela jakinarazten dugu. Kostua **15 €** izango da.



LH 3. mailako ikasleak maiatzaren 3tik 4ra (asteazkenetik ostegunera) IRRISARRILAND-era goaz. Hori dela eta, **apirilaren 3an, 25 €** kobratuko zaizkizue. Irteeraren bigarren zatia kobrantza izango litzateke.

LHko 2. ebaluaketako noten argitalpena

Asteazkenean, LH-ko 2. Zikloko ikasleen 2. ebaluazioko notak argitaratu ziren Alexia bitartez.

Alexia 
suite educativa

Irakurketa-solasaldia

Usurbilgo Udal Liburutegiak **IRAKURKETA-SOLASALDI** ekintza berri bat antolatu du, oraingoan **LH6ko gaztetxoentzat**; saioa **MAIATZAREN 10ean izango da, asteazkena, arratsaldeko 6etan**, Liburutegian bertan. **Mintzagai** izango dugun liburua, **Miren Agur Meaberen BIHOTZAK DUN-DUN** izango da, eta Yolanda Arrieta izango dugu irakurketa-partekatze honetan bidelagun. **Solasaldian parte hartu nahi duenak**, Liburutegian izena-eman behar du, eta nola ez, liburua jaso irakurtzeko!



[Pantailen erabilera egokia. Lanketaren deskargua](#)

Hitz Aho guraso eskolak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, Miren Ros gonbidatu du, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.



Ikasturte honetan, LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek formakuntza jaso ostean Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko du gurasoi eta talde eragilearen berri jasoko da. Azkenik, maiatzean, interesatu orok kezka plazaratzeko eta lantzeko aukera izango dugu.

Datak:

- **Gurasoekin: Apirilak 25, 17:30tan, Udarregi ikastolako jangelan. Agertzeko asmoa baduzu bete honako galdetegia apirilaren 21a baino lehen:** <https://forms.gle/AiCTA1XxDdLQ49vR6>
- **Bilera irekia:** Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro, **maiatzak 2, 17:00tan, Potxoenean**. Gonbidatuak Zarauzko guraso taldea: Gure aukera, guk 16.

DBH

[DBH 4ko familiei oharra](#)

Jakinarazten da 2023/24 ikasturterako Batxilergora sartzeko aurre matrikula epea **martxoaren 27tik apirilaren 21era** izango dela.



[Pantailen erabilera egokia. Lanketaren deskargua](#)

Hitz Aho guraso eskolak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, Miren Ros gonbidatu du, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.



Ikasturte honetan, LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek formakuntza jaso ostean Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko du gurasoi eta talde eragilearen berri jasoko da. Azkenik, maiatzean, interesatu orok kezka plazaratzeko eta lantzeko aukera izango dugu.

Datak:

- **Gurasoekin: Apirilak 25, 17:30tan, Udarregi Ikastolako jangelan. Agertzeko asmoa baduzu bete galdetegia Apirilaren 21a baino lehen.**
<https://forms.gle/AiCTA1XxDdLQ49vR6>
- **Bilera irekia:** Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro, **maiatzak 2, 17:00tan, Potxoenean.** Gonbidatuak Zarauzko guraso taldea: Gure aukera, guk 16.